

# Maren Iturrioz Irastorza

**B** maila • 1 saria

Kaixo!

Nire izena Maren Iturrioz da eta 14 urteko neska Beasaindarra naiz. Zaletasun ugari ditut, horietako bat kirola egitea da, baina batez ere futboleko aritza dut gustuko. Honez gain, sukaldatzea ere oso gustuko dut. Bestalde, txiki-txikitik musikaren munduan murgilduta nago eta nire denbora librean pianoa jotzea gustuko dut. Hala ere, beti topatzen dut tarteren bat nire lagunekin momentu ahaztezinak igarotzeko.



## KANPAIKADA BELTZA

Zer ote heriotza funtsean?

Gorputzak mugatzen duen isilunea  
edo arimaren pixkanakako itzaltzea  
bi eratara, azken finean kontsumitzen doan kandela

Zer ote heriotza funtsean?

denboraren eskutik gerturatzen doan iluntasuna  
edo bakardadeak sortutako ezin egon beltza  
bi eratara, saihestu ezin daiteken amaiera hotza

Zer ote heriotza funtsean?

dimentsio honetatik haratago garamatzan zubia  
edo atzera bueltarik ez duen iraungitze data  
bi eratara, erdi bideko punturik ez duen balantza

Zer ote heriotza funtsean?

atearen bestaldean geratzen direnen begi dizdiragabeak  
edo bihotzaren taupaden kolpatze ahuskorra  
bi eratara, sufrimendua sorrarazten duen gertakari ukaezina

Zer ote heriotza funtsean?

itxaropenez betetako zaku hutsa  
edo erabat husten zaituen azken hatsa  
bi eratara, heriotza funtsean.